

Euskadiko gazte gehienak eutanasiaren alde daude eta legez arautu beharko litzatekeela uste dute

Euskadin bizi diren 18 eta 29 urte bitarteko hiru gaztetik bik (% 66k) uste dute, ziur gainera, pertsona batek gaixotasun bat badu fase terminalean edo sendaezina den gaixotasun degeneratibo bat badu sufrimendu handiak sortzen dizkiona, legeak medikua ahalbidetu beharko lukeela botika dosi nahikoa emateko gaixoari, honek bere kabuz, edo senitartekoen laguntzaz, bere bizitzaz bukatzeko hala erabakitzen duenean. Gazteen beste % 14 iritzi horretakoak dira baina ez daude horren ziur. Gainontzekoak kontra daude edo ez dute erantzun.

| Pertsona batek gaixotasun bat badu fase terminalean edo sendaezina den gaixotasun degeneratibo bat badu sufrimendu handiak sortzen dizkiona, uste duzu legeak medikua ahalbidetu beharko lukeela botika dosi nahikoa emateko gaixoari, honek bere kabuz, edo senitartekoen laguntzaz, bere bizitza bukatzeko hala erabakitzen duenean? | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|---------------------------------|
| | Gazteak (18-29 urte) | Biztanleria osoa (>=18 urte) |
| Bai, ziur | 66 | 69 |
| Uste duzu baietz, baina ez zaude ziur | 14 | 14 |
| Uste duzu ezetz, baina ez zaude ziur | 3 | 3 |
| Ez, ziurtasun osoz | 9 | 8 |
| Ed/Ee | 9 | 6 |
| Guztira | 100 | 100 |

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (70. Euskal Soziometroa - Osasungintza)

Gainera, gazteen % 68ren ustez, legeak baimena eman beharko lioke medikuari egoera horretan dagoen paziente baten bizitza bukatzeko pazienteak berak hala eskatzen badio. Beste % 10ren iritziak hala izango beharko litzateke, baina ez daude aurrekoak bezain seguru horretaz.

| Eta kasu horretan bertan, uste duzu legeak baimena eman beharko liokeela medikuari paziente baten bizitza bukatzeko pazienteak berak hala eskatzen badio? | | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|---------------------------------|
| | Gazteak (18-29 urte) | Biztanleria osoa (>=18 urte) |
| Bai, ziur | 68 | 69 |
| Uste duzu baietz, baina ez zaude ziur | 10 | 14 |
| Uste duzu ezetz, baina ez zaude ziur | 3 | 3 |
| Ez, ziurtasun osoz | 8 | 7 |
| Ed/Ee | 10 | 7 |
| Guztira | 100 | 100 |

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (70. Euskal Soziometroa - Osasungintza)

Azken batean, gazteen % 74k oso ziur adierazten dute Espainian eutanasia legez arautu beharko litzatekeela. Beste % 9 arautzearen aldekoak dira baina ez dute hain seguru esaten.

| Azken batean, uste duzu Espainian eutanasia legez arautu beharko litzatekeela? | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|---------------------------------|
| | Gazteak (18-29 urte) | Biztanleria osoa (>=18 urte) |
| Bai, ziur | 74 | 76 |
| Uste duzu baietz, baina ez zaude ziur | 9 | 9 |
| Uste duzu ezetz, baina ez zaude ziur | 2 | 2 |
| Ez, ziurtasun osoz | 8 | 7 |
| Ed/Ee | 7 | 6 |
| Guztira | 100 | 100 |
| Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak oinarri hartuta (70. Euskal Soziometroa - Osasungintza) | | |

Aurreko tauleetan ikusi ahal denez, ez dago alde nabarmenik gazteen iritzien eta 18 urtetik gorako biztanleria osoaren iritzien artean.

Aipatutako datuak [70. Euskal Soziometroa - Osasungintza](#) ikerketatik datoz. Ikerketa hori Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak argitaratu berri du. Gazteen Euskal Behatokiak 18 eta 29 urte bitarteko gazteen erantzunak aukeratu ditu eta Euskadiko biztanleriaren batezbestekoarekin konparatu ditu.